

811/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 7KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA-ANTOLAKUNTZAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN, ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZAKO GARAPENEO ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIODETZAKO EUSKARA ZERBITZU KORPORATIBOAN.

LANPOSTUA:ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA - ANTOLAKUNTZAKO TEKNIKARIA.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Giza Baliabideen Zuzendaritza, Prestakuntza Zerbitzua, Garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetzan.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 3. HE, derrigortasun-data: 2024/12/03.

BALDINTZAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude).

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko langile finkoa izatea eta lanpostua jabetzan izatea Zuzendaritza Nagusian, Arlo Korporatiboko Teknikaria - Antolakuntzako Teknikaria.

- Mugikortasun horizontalaren xede diren destinoen kategoria / lanpostu funtzional bera izatea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea.

- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.

- Ez izatea karrerako funtzionarioko, estatutupeko langile finkoko edo langile lan-kontratudun finkoko izendapenik Arlo Korporatiboko Teknikari Arduraduna - Antolakuntzako Teknikaria kategorian, izendapen edo kontratu horrekiko interesdunak daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.

- Zuzendaritza Nagusiari langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.





- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko bezala, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.

- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta iragarritako azken EPEan kategoria honen oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-legepeko langilea izatea edo Osasun Sistema Nazionalako gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Arlo Korporatiboko Teknikari Arduraduna - Antolakuntzako Teknikaria kategorian.

- Zerbitzu aktiboan izatea, eta lanpostuak betetzeko eskabidea egin izatea norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundearen ez den zerbitzu-erakunde batean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA:(Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangalei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu)
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangalei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.



Osakidetza

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Euskararen ezagutza

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin, curriculum vitae dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenez izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoa egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun balioudunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

- 1.— Behin betiko barne-mugikortasuna Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilita ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 2.— Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilita ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 3.— Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabilita ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 4.— Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkoa buru dela, eta Ebaluazio eta Garapeneko Zerbitzuko burua eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako Goi Mailako teknikari batek osatuta (azken horrek idazkari-lanak egingo ditu, ahotsarekin eta botoarekin).



Osakidetza


HAUTAKETA-PROZEDURA:

Interesdunek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Balorazio Batzordeak. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 7a.

 Osakidetza
Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.